



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko maiatzaren 30a

70. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina hein batean aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, Hipoteka Legeko 206. artikulua aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Garoñako zentral nuklearra berriro irekitzearen aurka dagoela erabat. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Garoñako zentral nuklearra berriro irekitzearen aurka dagoela. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu homofobiaren eta transfobiaren aurka dagoela. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten eta arbuiatzen baititu ETA banda terroristako kide izateagatik kondenatutako pertsonen egindako omenaldiak, eta bere elkartasuna, maitetasuna eta estimua adierazten baitizkie terrorismoaren biktimei. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, 2012an bertan behera utzitako aparteko ordainsariaren itzulketari buruzkoa, Santos Cerdán León jaunak egina (9. or.).

—Galdera, azken bost urte hauetan delinkuentzia igo izanari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (10. or.).

- Galdera, urte honetarako Doikuntza Plan bat igortzeari buruz Espainiako Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioak igorritako komunikazioari Nafarroako Gobernuak emandako erantzunari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (10. or.).
- Galdera, defizita betetzeari buruz Nafarroak ministerioari hilero ematen dion informazioari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Enplegu Plana kudeatzen duen batzorde iraunkorrari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (12. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testuategina hein batean aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2014ko maiatzaren 22an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testuategina hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2014ko apirilaren 4ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testuategina hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik aurrera zuzenketak aurkezteko hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, **2014ko ekainaren 23ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, Hipoteka Legeko 206. artikulua aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2014ko maiatzaren 22an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Hipoteka Legeko 206. artikulua aldatzen duen Lege proposamena. Proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2014ko apirilaren 22ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea Hipoteka Legeko 206. artikulua aldatzen duen Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik aurrera zuzenketak aurkezteko hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, **2014ko ekainaren 23ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Garoñako zentral nuklearra berriro irekitzearen aurka dagoela erabat.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Garoñako zentral nuklearra berriro irekitzearen aurka dagoela erabat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nabai parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Garoñako zentral nuklearra Espainiako Estatu-ko zaharrena da 2006az geroztik. 1971ko martxoaren 2an jarri zen abian, eta berrogei urteko bizitza baliagarria izateko diseinatu zen. Epea, hortaz, izako martxoan bukatu zen.

Bere jardueran zehar behin eta berriz izandako akatsek erakusten dute zentralak segurtasun-arazo handiak dituela, eta horri gehitu behar zaio pitzadura-arazoak dituela, korrosioaren eraginez.

Azkenean, eta bere balio-bizitza zenbait aldiz luzatu ostean 42 urtekoa izateraino iritsi ondoren, Garoñako zentral nuklearrak 2013ko uztailean amaitu zuen jarduna, segurtasun-arazo ugarien, herritarren presioaren eta bideraezintasun ekonomikoaren ondorioz.

Gaur egun, zentrala geldirik eta sare elektriko-tik deskonektaturik dago 2012ko abenduaz geroztik, erregai irradiatuaren gaineko tasa berria ordaintzea ekiditeko.

Jarduera etetera behartzen zuen ministro-aginduarekin batera, ministerioko zenbait goi karguk eta Alderdi Popularreko hainbat kidek jada ohartarazi dute behar diren arau-aldaketa guztiak eginen dituztela aipatu zentral nuklearraren jarduera berriz hasteko.

Iragan martxoan, Gobernu zentralak bere mehatxua bete eta Erregai nuklearraren eta hondakin erradioaktiboen kudeaketa arduratsu eta segururako Errege Dekretua onetsi zuen. Instalazio Nuklear eta Erradioaktiboen Erregelamenduen aldaketarekin, argi berdea eman zaio Nucleorrek bere ustiapen-lizentzia berritzea eskatzeari eta zentral nuklear zaharkitua berriz irekitzeari. Alegia, bere balio-bizitza 2024ra arte luza liteke.

Espainiako Estatu-ko gobernu ezberdinak zentral nuklearren bizitza luzatzen tematzen dira; hartara, arriskuan jartzen dituzte ingurumena eta milioika herritarren osasuna. Bidenabar, bihurritu egiten dute araudia, iturri berriztagarri eta ekologikoetan oinarritutako energien garapena eragozteko (Nafarroa aitzindaria izan zen sektore horretan).

Halatan, etengabe erakusten dute zentralaren jabe diren konpainia elektrikoaren interes diruzaleak baizik ez dituztela defendatzen.

Gainera, Garoñako zentral nuklearra Nafarroatik hurbil dago, eta eragin zuzena du Ebro ibaian, Erribera osoan eta bertako nekazaritzan nahiz nekazaritzako elikagaien industrian.

Hori dela-eta, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeek honako mozio hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak zeharo arbuiazen du Garoñako zentral nuklearra berriz irekitzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta haren Industria, Energia eta Turismo Ministerioa premiatzen ditu ez dezaten baimendu Garoñako zentral nuklearra berriz ere irekitzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du errotik alda dezan bere ener-

gia-politika, politika iraunkorrak ezarrita, lehentasuna emanaz energia aurrezteari eta energia-iturri berriztagarri eta ekologikoak erabiltzeari.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 20an

Foru parlamentariak: Víctor Rubio Martínez eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Garoñako zentral nuklearra berriro irekitzearen aurka dagoela.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Garoñako zentral nuklearra berriro irekitzearen aurka dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Garoñako zentral nuklearra 2012an itxi zen, ez zituelako betetzen behar ziren segurtasun-baldintzak, hogeita hamar urte baino gehiagoko instalazio baten balio-bizitza luzatzeagatik, lehen belau-naldiko errektore bat izateagatik eta Fukushimako tragediak eragindako izuarengatik.

Endesa eta Iberdrola enpresek –bakoitzak jabetzaren %50 dauka– zentralaren balio-bizitza 2019ra arte luzatzeko epe guztiak utzi dituzte pasatzen, halako moduan non herritarrek onartua baitzuten behin betiko itxiko zela; eta zentrala kokatuta dagoen eskualdea zer egoera ekonomikotan gelditzen zen jakin arren, askoz ere gehiago baloratzen zen istripu nuklearrik gertatzeko inolako arriskurik ez edukitzearen lasaitasuna.

Atzo, akziodunen batzarrean, arestian aipatutako enpresa elektrikoetako arduradun nagusiek azaldu zuten zentralaren itxiera eragin zuten arrazoi ekonomikoak jada ez daudela; izan ere, aldatu egin da hondakin nuklearren gaineko zergen atzeraeraginari buruzko legedia, halako moduan non zerga-aldaketa horrek Nuclenorri ahalbidetuko baitio orain 2 urte jarduera mantendu izan balu baino 153.000.00 € gutxiago ordaintzea.

Zentrala berrirekitzeko erabakia Gobernuaren esku dagoenez, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du zentral nuklearraren bizitza luzatzearen aurka dagoela; izan ere, 30 urteko balio-bizitza izateko zegoen pentsatua, eta 40 urtez funtzionatu du. Hori dela-eta, erabat amortizatuta dago, eta ez dago bere segurtasuna bermatzen duen inolako txostenik.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du ez dezan lizentzia berri-rik eman Santa María de Garoñako zentral nuklearraren instalazioak berrirekitzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 20an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu homofobiaren eta transfobiaren aurka dagoela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Kontuan izanik gizon-emakume guztiak aske eta duintasun eta eskubide berberekin jaiotzen direla, eta estatuak saihestu egin behar dituztela sexu-orientazioagatiko, genero-identitateagatiko eta genero-adierazpenagatiko indarkeria nahiz gorrotoa, eta errespetatu egin behar dituztela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioak.

Aintzat hartuta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (EZPNI) eta Yogyakarta Printzipioak (2007), giza eskubideen nazioarteko legeria sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzko galetan aplikatzeari buruzkoak.

Aintzat hartuta, halaber, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren 17/19 Ebazpena, 2011ko ekainaren 17koa, giza eskubideei, sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzkoa, eta Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren 2011ko azaroaren 17ko txostena (“Leyes y prácticas discriminatorias y actos de violencia cometidos contra personas por su orientación sexual e identidad de género”).

Kontuan hartuta Amnesty Internationalen txosten hauek: "Amor, Odio y Ley. Despenalizar la homosexualidad" (2008), "Cuando el amor es delito. Penalización de las relaciones sexuales entre personas del mismo sexo en el África Subsahariana" (2013) eta "Por ser quien soy. Homofobia, transfobia y crímenes de odio en Europa" (2013).

Nahigabea adieraziz homosexualitatea oraindik legez kanpokoa delako 80 herrialdetan (horietako 36, afrikarrak) eta heriotza zigorraz zigortzen dutelako Mauritania, Sudanen, Iranen, Saudi Arabian, Yemenen, Nigeriako eta Somaliako Estatu batzuetan.

Nafarroako Parlamentuak:

1. Kezka sakona adierazi nahi du Amnesty Internationalek dokumentatu dituen kasu batzuegatik. Kasu horiek argi erakusten dute homosexualitatea kriminalizatu egiten dela, homofobiagatik edo transfobiagatik egindako krimenak zigorrik gabe geratzen direla eta gayek, lesbianek, bisexualak, transgeneroek eta intersexualek tratu

txarrak jasotzen dituztela. Honako hauek dira, hain zuzen:

– Kamerunen, Jean-Claude Roger Mbede kontzientzia-presolari "homosexualitatea eta homosexualitate saioa" leporatuta ezarritako hiru urteko espetxe-zigorra. 2011ko martxoaren 2an atxilotu zuten, eta 2012ko uztailaren eman zioten baldintzapeko askatasuna, baina Yaundeko Apelazio Gorteak berriz espetxeratzeko agindu zuen 2013ko abenduan. Tragikoki hil zen, 2014ko urtarrilaren 10ean.

– Hegoafrikan, Noxolo Nogwaza aktibista lesbianaren hilketak. 2011ko apirilaren 24an, bortxatu, eta hil arte kolpatu zuten, Kwa Theman (Gauteng) (poliziaren 635/04/2011 zenbakidun kasua).

– Turkian, Ahmet Yildizen hilketak. Gay aitortua, tiroz hil zuten Üsküdarren (Istanbul), 2008ko uztailaren 15ean. Iritzi orokorraren arabera, "ohorearen" izenean egindako hilketak izan zen.

– Bulgarian, Mihail Stoyanoven hilketak. 2008ko irailaren 30ean, basatiki kolpatu zuten, hil arte, Sofiako Borisova Garden parkean. Hilketaren arrazoiak: haren sexu-orientazioa (erasotzaileek uste zutena).

– Bielorrusian, Ihar Tsikhanyukun homosexualaren kasua. Poliziak galdeketa egin zion 2013ko urtarrilean, Lambdako Giza Eskubideen Zentroa erregistratzen saiatu zirenean. Kolpatu egin zuten, eta mehatxuak eta abusuak pairatu zituen gay izateagatik. Haren zauriak ez zituzten dokumentatu, eta tratu txarregatik jarri zuen salaketa ez dute ikertu.

2. Indarrez gaitzesten du lesbianen, gayen, bisexualen, transgeneroen edo intersexualen aurkako indarkeria eta diskriminazio oro.

3. Gizon-emakumeak beren sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik diskriminatzeke, auzipetzeke eta zigortzeke bidea ematen duten edo eman dezaketen lege guztiak indargabetzeko eskatzen du.

4. Sexu bereko pertsonekin sexu-harreman baimenduak (egiazkoak edo susmatuak) izateagatik atxilotutako edo zigortutako pertsona oro berehala aske uzteko eskatzen du.

5. Sexu-orientazioan edo genero-identitatean oinarritutako diskriminazio oro justizia-administratioko edozein mailatan debekatzeko eta ezaba-

tzeko beharrezko neurri guztiak har daitezela eskatzen du, izan legegintzakoak, administratibokak edo beste edozein arlotakoak.

6. Sexu-orientazioan edo genero-identitatean oinarritutako eskubide-urraketa guztien salaketak eta txostenak agintari eskudunek bizkor eta inpartzialtasunez ikertuko dituztela berma dadin eskatzen du, baita egileak kontuak ematera eta epaimahai baten aurrean agertzera behartuak izan daitezen ere. Ildo horretan, adierazpen honetako 1. puntuan aipatuta ageri diren kasuak nabarmendu nahi ditu.

7. Sexu-orientazioa eta genero-identitatea (izan egiazkoak edo ustezkoak) estatu guztietan "gorroto-krimenak" eragin ditzaketen ezaugarri babestuzat sar daitezela eskatzen du.

8. Eskatzen du, halaber, poliziako, komunikabideetako, osasun arloko eta irakaskuntzako profe-

sionalei prestakuntza eskain dakiela sexu-aniztasunari eta gizon-emakume ororen giza eskubideei buruz, LGBTI kolektiboko kideenak barne, eta prestakuntza hori ikasketen programa ofizialetan jaso dadila.

9. Giza eskubideen defendatzaileak xaxatzeari uzteko eskatzen du, eta babes egokia berma dakien sexu orientazioari eta genero-identitateari lotutako giza eskubideak defendatzeagatik arriskuan daudenei.

10. Parlamentuko lehendakariari adierazten dio erabaki hau bidali behar diela Kameruneko, Hegoafrikako, Turkiako, Bulgariako eta Bielorrusiako gobernuetara Espainian dituzten enbaxaden bitartez."

Iruñean, 2014ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten eta arbuiatzen baititu ETA banda terroristako kide izateagatik kondenatutako pertsonen egindako omenaldiak, eta bere elkartasuna, maitetasuna eta estimua adierazten baitizkie terrorismoaren biktimei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi eta arbuiatu egiten ditu ETA banda terroristako kide izateagatik kondenatutako pertsonen egindako omenaldiak, gorrotoa eta indarkeria sustatzen laguntzen duen jokabide bat direlako.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna, maitetasuna eta estimua adierazten dizkie terrorismoaren biktimei, eta beste behin berresten du hitzaren indarra dela demokrazian ideiak defendatzeko bide baliodun bakarra."

Iruñean, 2014ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, 2012an bertan behera utzitako aparteko ordainsariaren itzulketari buruzkoa.**SANTOS CERDÁN LEÓN JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Santos Cerdán León jaunak aurkeztutako galdera, 2012an bertan behera utzitako aparteko ordainsariaren itzulketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Santos Cerdánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zure gobernuaren zenbait eledun baimenduk nabarmendu dute haien esanetan bizi dugun susperraldi ekonomikoa.

Gobernuak, 2012ko abenduaren 12an egindako bilkuran, beharrezkotzat jo zuen Foru Administrazioaren esparruan aplikatzea 20/2012 Errege Lege-dekretua, administrazio publiko guztiek eta sektore publikoak nazio-lurralde guztian nahitaez bete beharrekoa baita.

Halatan, lege proiektu bat aurkeztu zuen, aparteko ordainsariak 2013 eta 2015 bitarte aurreratzeko xedez, baina horrek ez du ekiditen aparteko ordainsari hori bertan behera uztea eta aldi baterako galtzea.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu parlamentu-talde honetan:

- Zure Gobernuak ba al darabil 2012an kendutako aparteko ordainsaria aurten bertan itzulzearen aukera?

- Kontuan al duzue, gutxienez ere aukera gisa, baldin eta zailtasun ekonomikorik badago, modu mailakatuan egitea –hau da, aurten % 50a eta heldu den urtean beste % 50a–?

- Bi aukera horietako bat ere kontuan hartzen ez bada, noiz uste duzu itzuli ahal izanen duela zure Gobernuak aparteko ordainsari hori?

Iruñean, 2014ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Santos Cerdán León

Galdera, azken bost urte hauetan delinkuentzia igo izanari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, azken bost urte hauetan delinkuentzia igo izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Prentsan agertu ostean Barne Ministerioak Diputatuen Kongresuan emandako datuak, Nafarroako Fiteroko herrian Guardia Zibilaren kuartel berri bat irekitzea justifikatzekoak, hauex jakin nahi dut:

- Lehendakaritza, Justizia eta Barne Ministerioak ba al du delinkuentziaren igoera larri horren berri, zeina azken bost urteotan % 89koa izan bide baita?

- Departamentuak bere egiten al ditu instalazio militar hori eraikitzea justifikatze aldera Ministerioak emandako datu kezagarri horiek?

Iruñean, 2014ko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, urte honetarako Doikuntza Plan bat igortzeari buruz Espainiako Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioak igorritako komunikazioari Nafarroako Gobernuak emandako erantzunari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, urte honetarako Doikuntza Plan bat igortzeari buruz Espainiako Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioak igorritako komunikazioari Nafarroako Gobernuak emandako erantzunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek jakin nahi du ea zer erantzun eman dion Nafarroako Gobernuak Espainiako Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren komunikazioari, zeinaren bidez Foru exekutiboari jakinarazten baitzitzaion urte honetarako doikuntza plan bat igorri behar ziola Estatuari, defizitaren helburua ez betetzeagatik.

Halaber, Espainiako Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren komunikazio ofizialaren kopia eskatzen dut.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, defizita betetzeari buruz Nafarroak ministerioari hilero ematen dion informazioari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, defizita betetzeari buruz Nafarroak ministerioari hilero ematen dion informazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Estatuak Nafarroari 2014rako aurreikusitako defizitaren helburua lortzeko doikuntza-plan berri bat taxutu beharra ezarri diola ikusita, Ekonomiko kontseilariak 2014ko maiatzaren 14an adierazi zuen eskatzen duten informazioa ez dela "hilero Ministerioari ematen zaionaren oso bestelakoa".

• Espainiako ministerioari 2012an, 2013an eta 2014an hilero emandako dokumentazioaren kopia eskatzen dut.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Enplegu Plana kudeatzen duen batzorde iraunkorrari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Enplegu Plana kudeatzen duen batzorde iraunkorrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Parlamentari honek egindako galdera bati iragan maiatzaren 9 emandako erantzunean, Goicoechea andreak adierazi zuen Enplegu Plana kudeatzen duen batzorde iraunkorrek ez duela

esku hartzen enplegurako prestakuntzarako dirulaguntzen deialdietan –Gobernuak, CENek, UGTk eta CCOOk parte hartzen dute batzorde iraunkorrean, eta erabakiak aho batez hartu behar dira bertan–; izan ere, deialdi horiek Estatuko legediak arautzen ditu, eta Nafarroak ez dauka horiek aldatzeko inolako ahalmenik.

Orobat adierazi zuen arlo horretako lankidetzaren hitzarmenak sinatzen direla kasuko deialdia ebatzi ostean; hortaz, pentsa daiteke ebazpena, ustez, Gobernuak soilik ematen duelako, CENek, UGTk eta CCOOk ez dutela ezertan ere esku hartzen deialdi horietako onuradun bihurtzen dituzten erabakietan.

Hori guztia ikusirik, hona galderak:

Zuzena al da jasotako erantzunaren interpretazioa?

Gauza bera gertatzen al da Enplegu Planaren esparruan CENek, UGTk eta CCOOk egiten dituzten gainontzeko hitzarmen eta jardueretan? Enplegu Plana kudeatzen duen batzorde iraunkorreko kide izan arren –erabakiak aho batez hartzen dira bertan–, ez al dute esku hartzen zerbitzu horiek nork, zer irizpiderekin eta zer oinarriekin emanen dituen ezartzeko erabakietan?

Iruñean, 2014ko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola